# Denbora-

## 1 Labirintoa

Bixente kalean zihoan, eta haize bolada batek txapela eraman dio. Lagunduko al diozu txapela hartzeko bidea topatzen?



## 2 Itzalak

Pirataz mozorrotu zeneko ezpata du Ekaitzek etxean. Itzal hauetako bat baino ez da ezpatarena. Zein?




Erantzunak: 2.- b. 4.- b eta g. 5.- Ezpata bat.

## 3 Kopiatu koadroz koadro

Gustuko al duzu marraztea? Edozer marrazteko gai al zara? Guk marrazki hau egitea proposatzen dizugu. Ea berdin-berdina marrazten duzun.



# -pasa

## 4 Bikiak

Zapata-dendako erakusleihoan zapata ugari daude. Guztiak berdinak direla ematen du. Baina multzo honetatik bi soilik dira berdinak.




## 5 Asmatu eta margotu

Ezkutuko irudia zer den jakiteko, erantzun egokiak eman behar dituzu lehenengo. Galderei zuzen erantzun eta laukiak margotu. Horra irudia!!

**1.- Nongoa da berez Zeledon?**

(Erantzun zuzena horiz margotu)

1.- Amurrio.
2.- Zalduondo.
3.- Gasteiz.

**2.- Non izango dira aurten Olinpiar Jokoak?**

(Erantzun zuzena horiz margotu)

4.- Grezia.
5.- Erroma.
6.- Sydney.

**3.- Zenbat aldiz irabazi du Lance Armstrongek Tourra?**

(Erantzun zuzena horiz margotu)

7.- Zazpi aldiz.
8.- Bost aldiz.
9.- Sei aldiz.

**4.- Zein hiriburutan dago Artium museoa?**

(Erantzun zuzena marroiz margotu)

10.- Donostia.
11.- Gasteiz.
12.- Maule.

**5.- Nongoa da Nadia azken orriko ipuineko pertsonaia?**

(Erantzun zuzena marroiz margotu)

13.- Kongo.
14.- Errumania.
15.- Errusia.

**6.- Nor da Bilboko jaietako pertsonaia?**

(Erantzun zuzena grisez margotu)

16.- Artillero.
17.- Zeledon.
18.- Marijaia.




## Panpina barregarriak

Marrazkiak, umorea eta denbora-pasa uztartzen ditu ondorengo jokoak. Marrazki dibertigarriak egin, eta ongi pasatu lagunekin!!





**1** 20 bat zentimetroko paper zuri bat hartu, eta hiru zati berdinetan tolestu. Tolestura bakoitzean bi marra marraztu behar dira.

**2** Paperaren lehen zatian buru bat marraztuko du jokalari batek. Tolesturan egin ditugun marrak lepoa egiteko erabili behar dituela izan behar du kontuan marrazkilariak. Gainerako jokalariek ezin dute ikusi hark marraztu duena. Orria tolestu, eta hurrengo jokalariari pasatuko dio papera.

**3** Hurrengo jokalariak panpinaren gorputza marraztu beharko du. Ezin du aurreko jokalariak marraztu duen burua ikusi, eta goiko marrak lepoa egiteko erabili direla hartu behar du kontuan; beheko marrak, berriz, gerria egiteko erabiliko ditu. Marrazten amaitutakoan, orria tolestu, eta hurrengo jokalariari emango dio.

**4** Azken jokalariari panpinaren hankak eta oinak marraztea egokituko zaio. Marrazkia amaitutakoan, orria zabaldu eta hiru marrazkilarien artean egin duten panpina ikusi ahal izango dute. Zein desberdina eta dibertigarria den, ezta?